



BEZEROEN SEGMENTUA

Gure enpresa **KALORELLAn**, PANZITATXILAX produktua eguneroko erosotasuna bilatzen duten pertsonentzat pentsatuta dago:

- Emakume gazteak daude, 14 eta 50 urte artekoak, eta produktua beroaren bidez hileroko edo sabelaldeko minak arintzeko erabiliko dute.
- Bestaldetik, 20 eta 65 urte, arteko, emakume eta gizonek produktua erosten dute. Giltzurruneko, sabeleko edo gorputzeko beste min batzuk izaten dutenean berotu eta mina gutxitzeko aukera ematen duelako gure produktua.
- Lan fisiko handia egiten duten 25 eta 60 urte bitarteko pertsonentzat produktua erabilgarria da, bai mina gutxitzeko bai poltsiko praktikoa erabiltzeko.
- Zirkulazio txarra edo hotz sentsazio handia duten pertsonak ere etekin handia atera diezaiokeite produktuari.
- Lan asko edo fisikoki asko mugitzen diren pertsonak ere kontuan hartu ditugu, erosle ohikoak direlako. Produktua edozein gauza egiten duten bitartean eraman ahal dutelako.
- Hainbat pertsonak ere soilik hotz sistemarengatik erosten dute, hondartzan dauden bitartean mugikorra ez puskatzeko, bertan medikamentuak eramateko... Beraz, batez ere pertsonak hotz sistemarengatik erosten dutenak, udan erosiko dute.
- PANZITATXILAXek, bestalde, egunerokotasunean mugitzen dabiltzan pertsonentzat da aproposa: lanera, ikastera, kalera edo mendira joatean gauzak modu praktikoan gordetzeko aukera eskaintzen du, bereziki gauza txikiak.
- Azkenik pertsona batzuek, produktua erosiko dute bere egunerokotasunean gerriko poltsak erabiltzen dituztelako edo praktikoa iruditzen zaielako, hau da, ez dute bere funtzioarengatik erosiko, baina era berean etekin handia aterako diote baita ere.

Azken finean, ez dugu adin tarte bat gure produktua PANZITATXILAK erabiltzeko, denek erabil dezaketelako, bai emakumezkoek bai gizonezkoek.